

EKITALDIAK-EVENTOS / KULTURA-CULTURA / SIDRA-SAGARDOA

Donostiako Sagardo Eguna, irailaren 1ean.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 28/08/2012 - 13:47

Sin comentarios



Donostiako Sagardo Eguna izango da irailaren 1ean, aurten 27garren aldiz, Konstituzio Plazan, goizeko 11:00etatik 14:00etara. **Gipuzkoako 40 sagardogile** bilduko dira. **Donostiako Euskal Jaiei** barruko ekitaldia izango da eta urteroko moduan, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak 40 sagardotegi izango dira bertan, beren sagardoa probatzera ematen, Plazako arkuetan jartzen diren postuetan.

Aurtengo edizioak betiko **sagardo dastatzeaz gain** berrikuntza dezente izango ditu, urteroko festa handia berriro eta zabaldu eta erakargarriagoa egiteko helburuarekin.

Aurten, **2012ko uztako lehen muztioa eramango da bi Karreto-barriketan** idi pareek tirata eta bidean jendeak dastatzeko aukera izango du Garai batean egiten zen moduan, idi pareek Karreto-barrika edo Garliak eramango dituzte Konstituzio plazara, 2012ko uztako lehenengo muztioarekin. Karreto-barrika bat Loiola kaletik aterako da eta bestea Sauesetik eta Konstituzio Plazara arteko bidea egingo dute. Bidean, jendeak lehenengo muztioa probatzeko aukera izango du, ume, nagusi nahiz heldu; izan ere, garai batean sagardoa ez ezik muztioa edateko ohitura ere bazen sagarra jo berritan. Bi idi pareak eta itzaiak goizeko 11:00etan aterako dira, eta jendea sagardo egunaren berri emanaz inguratuko dira Konstituzio plazaraino. Konstituzio plazan berriz **txalapartariak** egingo diete harrera, eguerdiko 12:15etan **kirikoketa** batekin eta sagardogile guztiek, gonbidatuek eta omenduek ohorezko topa egingo dute ordu horretan, plazako oholza aurrean.

Egitaraua:

11:00etan Sagardo Egunaren hasiera. Baso salmenta eta dastatzea hasiko da.

11:00 Karreto-barrikak eta idi pareak aterako dira Sauesetik eta Loiola kaletik. Karreto-barriketan uzta berriko lehenengo sagar muztioa eramango dute eta jendea probatzeko ematen joango dira.

12:15 Karreto-barrikak eta Idi pareak Plazara iritsiko dira. Kirikoketak egingo dio ongi etorria eta argazki ofiziala aterako da sagardogile, gonbidatu eta omenduekin.

12:30 Omenaldia egingo zaie bertsolariei dantzari eta txistulariekin eta bertsolariek saioa egingo dute.

14:15 Dastatzea bukatuko da.

Tags: 40 sidreros, degustación de sidra, Donostia, karreto-barrika, kirikoketa, sagardo dastaketa, Sagardo eguna, txalapartaris

Anterior post

Las sidrerías Irigoien, Petritegi y Lizeaga ganadores en el Concurso de Sidras de Ergobia. Irigoien, Petritegi eta Lizeaga sagardotegiak irabazle Ergobiko Sagardo Lehiaketan.

Siguiente post

Septiembre 2012: Sidras de Zelaia y Gaztaña para degustar en Sagardoetxea. 2012ko iraila: Zelaia eta Gaztaña sagardoak dasta daitezke Sagardoetxean.

Tu comentario / Zure komentarioa

Sagardoaren Lurralde



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurralde.com
www.sagardoarenlurralde.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Besteak-Otros
Ekitaldiak-Eventos
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomía-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Sagardoaren munduko bitxikeriak: Maria Josefa de Larramendi, gizonen munduko emakume asaldatzailea.



Oiartzungo XXIV. Sagardo Eguna, maiatzaren 25ean.



Etorkizuneko sagardoaren haztegi handia sortu dute Billabonan.



"Petri" sagardoaren kortxo zerbitzaile berria.

Enviar



Astarbe sagardotegiak 450 urte bete ditu.

Comentarios recientes

Sagardoaren Lurraldea en “Baserri munduko memoria” sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.

Sagardoaren Lurraldea en Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.

Xabier en **Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.**

Xabier en **“Baserri munduko memoria” sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.**

Goretti en **“Sagastiak loretan” ARGAZKI LEHIAKETA Facebook-en.**